

EBAZPENA / RESOLUCION

Espediente zk./ Expediente nº: 7543/2025

Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen

Prozedura/ Procedimiento: Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak/ Subvenciones por Concurrencia Competitiva

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Toki-garapen eta Enplegu Sailari dagozkion diru-laguntzak arautzen dituzten Berariazko Oinarri Arautzaileak, Udaltzatzen 2017ko ekainaren 29an egindako osoko bilkuran onetsi zituen. Horiek behin betiko onartu ziren eta 2017ko irailaren 12ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren (174. zk.).

Kreditua dago 22.2411.481.08 partidan.

Ekonomia sustapena eta enplegu Teknikariak, 2025eko azaroaren 27ko dataz, txostena egin du.

Galdakako udalak eta Erakunde Autonomoek diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorren 20. Artikuluak xedatzen du norgehiagoka bidezko erregimenean emakidetzeko prozedura administratzaioaren kabuz hasten dela Alkateak onetsitako deialdiaren bidez eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Korporazioaren iragarki-oholean argitaratuz.

Las Bases Reguladoras Específicas de subvenciones correspondientes al Departamento de Desarrollo Local y Empleo fueron aprobadas por el Ayuntamiento Pleno en su sesión de 29 de junio de 2017. Las cuales quedaron definitivamente aprobadas y se publicaron en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 174, de 12 de septiembre de 2017.

Existe crédito en la partida 22.2411.481.08.

El Técnico de promoción económica y Empleo emite informe el 27 de noviembre de 2025.

El artículo 20 de la “Ordenanza General Reguladora de la concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Galdakao y sus Organismos Autónomos”, dispone que el procedimiento de concesión en régimen de concurrencia competitiva se inicia de oficio mediante convocatoria aprobada por la Alcaldía y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de edictos de la Corporación.

2025(e)ko azaroaren 27(a)(e)ko PR/2025/3900 ebazpen proposamena ikusita, 2025(e)ko abenduaren 1(a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2025 /3900 de 27 de noviembre de 2025 fiscalizada favorablemente con fecha de 1 de diciembre de 2025.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN



Lehenengoa.- Ekonomia sustapena eta enpleguari dagozkion diru-laguntza lerroko 2025eko ekitaldiko bigarren deialdia onestea, ebazpen honen eranskinean dagoen baldintzen arabera:

ENPLEGU BABESTUA: Ezohiko lan merkatuan kontratatzeko laguntzak:

1. proiektua. Izena: *****Galdakako adinekoen etxeetako dinamizatzaileak.”

- Dirulaguntza-lerroa: Enplegu-sustapena, enplegu babestuko proiektuak eginez: ezohiko lan-merkatuan kontratatzeko laguntza.

- Deialdiko gehieneko zenbatekoa: 223.000,00 €.

- Aurrekontu-partida: 22-2411-481-08 Laneratze-enpresentzako edo zailtasun bereziak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea helburu duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak.

- Lanpostu kopurua: 12.

2. proiektua. Izena: “Natura kontserbatzeko lantalea. Galdakako mendi-bideak mantentzea”

- Dirulaguntza-lerroa: Enplegu-sustapena, enplegu babestuko proiektuak eginez: ezohiko lan-merkatuan kontratatzeko laguntza.

- Deialdiko gehieneko zenbatekoa: 227.000,00 €.

- Aurrekontu-partida: 22-2411-481-08 Laneratze-enpresentzako edo zailtasun bereziak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea helburu duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak.

- Lanpostu kopurua: 12.

Primero.- Aprobare la segunda Convocatoria del ejercicio 2025 de la siguiente línea de subvención correspondiente a la concejalía de Promoción económica y Empleo, en los términos que figuran en el anexo a esta resolución:

EMPLEO PROTEGIDO: Ayudas a la contratación en el mercado no ordinario de trabajo:

Proyecto 1. Denominado**:** “Dinamizadoras /es en hogares de mayores de Galdakao”.

- Línea de subvención: Fomento del empleo mediante la realización de proyectos de empleo protegido: ayuda a la contratación en el mercado no ordinario de trabajo.

- Cuantía total máxima convocada: 223.000,00 euros.

- Partida presupuestaria: 22-2411-481-08 Ayudas a empresas de inserción o entidades sin ánimo de lucro dedicadas a la integración socio-laboral de personas con especiales dificultades.

- Número de puestos: 12.

Proyecto 2. Denominado: “Equipo de conservación de la naturaleza. Mantenimiento de senderos en Galdakao”

- Línea de subvención: Fomento del empleo mediante la realización de proyectos de empleo protegido: ayuda a la contratación en el mercado no ordinario de trabajo.

- Cuantía total máxima convocada: 227.000,00 euros.

- Partida presupuestaria: 22-2411-481-08 Ayudas a empresas de inserción o entidades sin ánimo de lucro dedicadas a la integración socio-laboral de personas con especiales dificultades.

- Número de puestos: 12.



Bigarrenen.- Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bidetik. Era berean, deialdiaren testua osorik udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren web-orrian argitaratzea.

Hirugarrenen.- Deialdiari buruzko informazioaz gain, araudi ezargarrian dauden baldintzen arabera izandako emakidei buruzko informazioa ere Diru-laguntzen Base Nazionalera bidaltzea.

Segundo.- Publicar un extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia por conducto de la Base de Datos Nacional de Subvenciones. Asimismo, publicar en el Tablón de Edictos de la Casa Consistorial y en la web municipal el texto íntegro de la convocatoria.

Tercero.- Remitir a la Base Nacional de Subvenciones, además de la información sobre la convocatoria, información sobre la concesión o concesiones recaídas en los términos establecidos en la normativa aplicable.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**





ENPLEGU BABESTUKO PROIEKTUAK EGITEKO 2025EKO BIGARREN DEIALDIA: LAN-MERKATU EZ-ARRUNTEAN KONTRATATZEKO LAGUNTZA, ETA "LEHENTASUNEZKO ARRETA KOLEKTIBOENTZAKO ENPLEGU-PROIEKTU INTEGRALAK" FINANTZATZEKO LAGUNTZAK.

1. artikulua.- Oinarri arautzaileak.

Toki-garapeneko eta Enplegu arloari dagozkion dirulaguntzak arautzen dituzten Berariazko Oinarri Arautzaileak, Udalbatzak 2017ko ekainaren 29an egindako osoko bilkuran onetsi zituen. Horiek behin betiko onartu ziren eta 2017ko irailaren 12ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren (174. zk.).

2016ko ekainaren 13an, Alkatetzak, oinarri arautzaile horiek onartzeko prozeduran diren bikoiztasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko txostena eskatu zuen, zeina arau hauetan aipatzen den: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 7.4 artikulua (27/2013 Legea indarrean sartu ondoren) eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 16.7 artikulua. Epea igaro eta 2016an eta hurrengo urteetan Eusko Jaurlaritzak ez zuenez bikoiztasun-txostenik eman, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2017ko ekainaren 26an, 2018ko maiatzaren 29an, 2010eko otsailaren 27an eta 2020ko martxoaren 10ean finantza-iraunkortasunari buruz egindako aldeko txostenak ikusita, 2022ko maiatzaren 23an, udaleko kontu-hartzaile nagusiak berriro eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari finantza-nahikotasunaren txostena.

Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 4., 50., 67. eta 80. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, enplegu eta tokiko garapeneko planak tokiko esparruan enplegu-politika publikoak planifikatzeko tresnak dira, eta jarduera ekonomikoa eta soziala suspertzeri eta, hala badagokio, eraldatzera bideratuta daude, hazkundera eta lan duina sortzeko helburuarekin, dauden baliabideak eta lurralde-testuinguruaren aukerak kontuan hartuta.

Illo horretan, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren 3. sektore estrategikoan proposatutako orientabideek helburutzat hartzen dituzte laguntza eta orientazio pertsonalizatuak, enplegu-politika aktiboen funtsezko elementutzat jotzen baitira. Ondorioz, deialdi honen helburua da enpleguari laguntzeko ibilbide integral bat eskaintzea, premia handiena duten biztanleei gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak errazteko.

Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusiaren 2025eko irailaren 23ko Ebazpenaren bidez onartutako laguntzen deialdia argitaratu da. Ebazpen horren bidez, argitara ematen dira lehentasunezko arreta behar duten kolektiboentzako





enplegu-proiektu integraletarako laguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko ekitaldirako deialdia.

Oinarri horiek eta deialdi hau Udalaren web orritik jaitsi ahal izango dira: www.galdakao.eus

Era berean, Ekonomia Sustapeneko eta Enpleguko arloaren "Galdakaoko Behargintza" udal-bulegoetan ere eskuratu ahal izango dira eskabideak (Zabalea kalea 35 bis, behea, Galdakao).

2. artikulua.- Gehieneko zenbatekoa guztira eta dirulaguntzak egozten zaizkien aurrekontu-kredituak.

1. proiektua. Izena: "Galdakaoko adinekoen etxeetako dinamizatzailerak."

- Dirulaguntza-lerroa: Enplegu-sustapena, enplegu babestuko proiektuak eginez: ezohiko lan-merkatuan kontratatze-laguntza.
- Deialdiko gehieneko zenbatekoa: 223.000,00 €.
- Aurrekontu-partida: 22-2411-481-08 Laneratze-enpresentzako edo zailtasun bereziak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea helburu duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak.
- Lanpostu kopurua: 12.

2. proiektua. Izena: "Natura kontserbatzeko lan-taldea. Galdakaoko mendi-bideak mantentzea"

- Dirulaguntza-lerroa: Enplegu-sustapena, enplegu babestuko proiektuak eginez: ezohiko lan-merkatuan kontratatze-laguntza.
- Deialdiko gehieneko zenbatekoa: 227.000,00 €.
- Aurrekontu-partida: 22-2411-481-08 Laneratze-enpresentzako edo zailtasun bereziak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea helburu duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak.
- Lanpostu kopurua: 12.

3. artikulua.- Dirulaguntza ematearen helburua eta xedea.

Diruz lagunduko diren ekintzak oinarri arautzaile espezifikoaren 3. artikuluan ezarritakoak dira; hau da, enplegu-proiektu integralak egitea egoera ahulean edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzat, lanik ez dutenentzat eta Lanbide-Euskal Enplegu





Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda daudenentzat, betiere Galdakaon bizi badira.

Enplegu-proiektu integralek jarduketa hauek guztiak konbinatu beharko dituzte:

- Prestakuntza lan-aurreko gaitasunetan, zeharkako gaitasunetan eta konpetentzia profesionaletan.
- Parte-hartzaile bakoitzaren lan-kontratazioa.
- Lan-orientazioa eta aholkularitza.

Emandako dirulaguntzek proiektu hauek finantzatzeko helburua izango dute:

1. proiektua. Izena: “Galdakaoko adinekoen etxeetako dinamizatzailleak.”
2. proiektua. Izena: “Natura kontserbatzeko lan-taldea. Galdakaoko mendi-bideak mantentzea”

Proiektuak Ekonomia Sustapeneko eta Enplegu arloaren bulegoetan eskura daitezke, Zabalea kalea, 35, bis, behea, Galdakao.

Proiektu guztiak bat datoz 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren 3. sektore estrategikoan proposatutako orientabideekin. Sektore horren helburua da laguntza eta orientazio pertsonalizatua ematea enplegu-politika aktiboen funtsezko elementu gisa, pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko eta lan-merkatuan sartzea errazteko.

Kontratazioek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2025eko irailaren 23ko Ebazpenaren 4. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Ebazpen horren bidez, “Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak” finantzatzeko laguntzen deialdia argitaratu zen. (EHAA, 2025/09/30)

4. artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagun daitezkeen gastuak.

- a) Aukeratutako proiektuentzako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 450.000,00 eurokoa da, guztira.
- b) Diruz lagun daitezkeen gastuak:
Diruz lagun daitezkeen gastuak hona hauek dira:
 - 4.b, 1.- Proiektuan parte hartzen duten kontratatutako pertsonen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak.
 - 4.b, 2.- Prestakuntza-ekintzak.





4.b, 3.- Lan-orientaziorako banakako ekintzak.

4.b, 4.- Proiektua koordinatzeko eta jardueraren jarraipena egiteko gastuak. Lan horiek egiten dituzten langileei dagozkien soldata-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak, Lanbidek dirulaguntza ematen duen egunetik aurrera.

4.b, 5.- Jarduketa horiek gauzatzearekin zuzenean lotutako beste kostu batzuk, horietan emandako denboraren proportzioan, adibidez: aseguruak, materiala, lokalaren errentamendua, parte-hartzaileentzako kontziliazio-neurriak, etab.

Likidazioak ezin izango du inola ere gainditu hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

5. artikulua.- Erakunde onuradunak.

Dirulaguntza hau jaso ahal izango dute Euskadiko hirugarren sektore sozialeko irabazi-asmorik gabeko erakundeek, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen dihardutenek (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean arautua), baldin eta hitzarmen bidez adosten bada edo proiektuak gauzatzea kontratu bidez esleitzen bazaie.

Ezingo dira onuradun izan egoera hauetako batean dauden entitateak:

a) Delitu hauetakoren bat egiteagatik kondenaturik egotea: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Epai edo administrazio-ebazpen irmo batek kondenaturik edo zehaturik egotea eta horren ondorioz dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu izana eta kondena- edo zehapen-epea igaro gabe egotea.

c) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaria egin izana, edozein prozeduratan kaudimen-gabetzat jota egotea, konkurtsoan deklaratura egotea –konkurto horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada izan ezik–, esku-hartze judizialaren mende egotea edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta egotea eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaituntza-aldia oraindik amaituta ez egotea.

d) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana, eta suntsiarazpenaren arrazoiaren errudun deklaratu izana.

e) Merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legeko ordezkariak badira, Herri-administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean edo Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren





26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean egotea edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat betetzea, arau horretan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritakoaren arabera.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan (2023ko otsailaren 17ko EHAA) xedatutakoaren arabera.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen diren, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen. Nolanahi ere, eskatzaileak berariaz egin diezaioke aurka egiaztatze-lan horri eta, halakorik egiten badu, ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu betekizun hori betetzen duela frogatzeko.

g) Egoitza fiskala erreglamenduz paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean izatea.

h) Dirulaguntzen arloko itzulketa-betebeharrak egunean ez izatea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduak (2023ko otsailaren 17ko EHAA) 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

i) Zehapen administratibo edo penalak izatea sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik; hain zuzen ere, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua, edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, eta zehapen-epea igaro gabe egotea.

j) Dirulaguntzak edo bestelako laguntzak jasotzea eragozten dion legezko kausak izatea, hauek barne:

– Ez edukitzea berdintasun-planik indarrean, nahiz eta enpresa Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta egon.

– Ez edukitzea ezarrita neurririk sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak dauzkan legeek ezarritakoaren arabera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan.

– LGBTIfobia egitea, hura bultzatzea edo sustatzea, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

k) Zehatuta egotea, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, arau-hauste astun edo oso astun bat egiteagatik, lege hauetan xedatutakoaren arabera: 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia





Zirkularra bultzatzekoa, edo 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa; harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

l) Ez betetzea desgaitasuna dutenentzat lanpostuak gordetzeko lege ezarritako kuota edo, bestela, horren ordezko neurririk hartu gabe egotea.

m) Elkarteen kasuan, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak 4. artikuluko 5. eta 6. zenbakietan xedatutako debeku-kausen eraginpean egotea.

n) Legez kontrako egintza penalen zentzuzko zantzuak aurkitu zaizkiola-eta inskripzio-prozedura administratiboa eten zaion elkarre bat izatea, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen dion ebazpen judizial irmorik ez dagoen bitartean.

ñ) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetan, eta eskatzailea irabazi-asmoa duen pertsona fisikoa edo juridikoa bada, zuzenbide publikoko entitate ez dena, ez betetzea Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 3 bis apartatuan aurreikusitako moduan.

Eskakizun hori betetzat joko da abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila lege honetan aurreikusitako ehunekoaren parekoa edo handiagoa denean: 18/2022 Legea, irailaren 28koa, Enpresak Sortu eta Handitzekoa, azken xedapenetako seigarrena, d) letra, bigarren atala (aurreko ekitaldian hornitzaileei egindako ordainketa guztietatik ordaindutako fakturen % 90, abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako gehieneko epea igaro baino lehen).

6. Artikulua.- Kontratazioen baldintzak.

6.1.- Edonola ere, lan-kontratazioek deialdi horren 3.2.2. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko dute. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Zuzendari Nagusiaren 2025eko irailaren 23ko Ebazpenaren bidez onartu zen, zeinaren bidez argitaratzen baita "Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak" finantzatzeko laguntzen deialdia. (2025/09/30eko EHAA)

6.2.- Parte-hartzaile bakoitzaren lan-kontratazioa, honako baldintza hauekin:





- Egindako kontratuak inoiz ere ezingo dira erabili enplegua eskaintzen duen entitatearen ohiko jarduerak estaltzeko edo haren zerbitzura dauden langileak ordezkatzeko.
- Kontratuak lanbide-kategoria berekoak eta sektore ekonomiko berekoak izango dira.
- Kontratuak 6 hilabete iraungo dute eta lanaldi partzialekoak izango dira, alegia, lanaldiaren % 75ekoak. Kontratu-mota enplegugarritasuna eta laneratzea hobetzeko kontratua izango da, Enpleguaren Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa (505 kodea).
- Ibilbide indibidualizatuaren barruan egin beharreko lan-kontratuak artikuluko honetako 3.a) apartatuan proiektuak gauzatzeko araututako aldiari hasi eta amaitu beharko dira.
- Kontratuen berri emateko Contrat@ aplikazioa erabiliko da, kontratua hasi eta hamabost egun balioduneko epean, eta «Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak» aipamena izan beharko dute, aplikazio horretan ezarritakoaren arabera.

6.3.- Hauek dira kontratatu beharreko pertsonen baldintzak:

- a) Zaurgarritasun-egoeran edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen kolektibokoa izatea.
- b) Langabeek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan izena emanda egon beharko dute, eta enplegu-eskatzaille gisa alta emanda.
- c) Galdakako udal-mugartean erroldatuta egotea 2024ko azaroaren 1a baino lehenagotik, etenik gabe.

Ezingo dira enplegu-proiektu integralen hartzaile izan, zaurgarritasun-egoeraren baldintza bete arren, 2024-2025 deialdian diruz lagundutako proiekturen batean («Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak») parte hartu zuten pertsonak.

Honako hauek zaurgarritasun-egoeran edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudela ulertuko da:

- 45 urtetik gorako pertsonak.
- DSBEaren edo BGDSaren titularrak edo onuradunak.
- Luzaroko langabeak: alegia, lanik gabe eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan lan-eskatzaille gisa inskribatuta eta alta emanda egotea hautagaitza bidaltzen den egunaren aurrekoan, bai eta aurreko 540 egunetatik gutxienez 360 egunez ere.





- Kualifikazio baxuko langabeak: enplegu-eskaeran 23. mailatik gorakoa ez den bitartekotzako prestakuntza-maila adierazi duten pertsonak: DBHko graduatu titulua edo baliokidea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, laguntza espezifikoak jasotzen dituztenak edo lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak –harrera-baliabideetatik etortzeagatik edo bestelako inguruabar batengatik–; egoera berezi hori egiaztagiri bidez egiaztatu beharko dute eta enplegu-eskaeran izaera berezi horren aipamena eduki.
- % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta dutenak.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenak, Gizarte Zerbitzuek egiaztatutak.
- AEA duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalak.
- Zaurgarritasun-egoeran dauden eta enplegu-politiketarako lehentasunezko arretako kolektibotzat hartzen diren beste pertsona batzuk, Enpleguari buruzko otsailaren 28ko 3/2023 Legearen 50. artikuluan ematen duen definizioaren arabera.

7. artikulua.- Emateko erregimena.

Dirulaguntza norgehiagoka-erregimenean emango da, eta proposamen onuragarriena hautatzeko sistema ezarriko da, puntukako modalitatean. Behar bezala aurkeztutako proposamen bakoitza aldeztetik ezarritako balorazio-irizpideen arabera baloratuko da, eta puntuazio handiena duen proposamena soilik hautatuko da.

Gainerako proposamenak balorazio-irizpidearen arabera ordenatuko dira, puntuazio handienetik txikienera, hautatutako proposamena ordeztzeko, azken horrek, edozein arazorengatik, proiektua garatu ezin badu.

Modu espezifikoan eta bereizita baloratuko dira behar bezala aurkeztutako eskatzaileen proposamen guztiak; gehienez 100 puntu izango dituzte, honako irizpide hauen arabera:

- Aurkeztutako proposamen teknikoa dirulaguntzaren helburuetara egokitzea: balorazioaren % 40, hau da, 40 puntu.
- Proposamen ekonomiko onuragarriagoa: balorazioaren % 40, hau da, 40 puntu.
- Entitateak erabilitako baliabide materialak eta pertsonalak: balorazioaren % 20, hau da, 20 puntu.

Proposamen ekonomiko onuragarriena honela baloratuko da:

Eskaintza merkeenari gehieneko puntuazioa emango zaio, eta gainerako proposamenak honela puntuatuko dira: proposamen merkeenaren eta baloratzen





den lizitatzaillearen proposamenaren arteko koizientearen emaitza, irizpideari ezar dakizkioken guztirako puntu kopuruarekin biderkatuta. Hau da:

Pb x 40

Ps

Pb proposamen ekonomiko baxuena da.

Ps baloratzen den eskatzailearen eskaintza da, eta adierazten dena irizpide honetan aplikatu beharreko gehieneko puntu-kopurua da.

Proposamen ekonomikoak kasu guztietan, aipatutako Hitzarmen Kolektiboan dagokion maila profesionalerako ezarritako soldatak errespetatuko ditu.

8. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

8.1.- Epea: Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea **3 egun baliodunekoa** izango da. deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu denetik. Eskabidearekin batera erantsitako dokumentazioa aurkeztu beharko da, eskabidea Alkate Udalburuari zuzenduko zaio eta onuradunak edo ordezkatzeko duen pertsonak sinatu beharko du.

8.2.- Modua: Entitate interesdunek Udalaren Erregistro Elektronikoko Orokorrean, aurkeztu beharko dituzte eskabideak edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aipatzen diren lekuetako edozeinetan.

9. artikulua.- Eskabideari erantsi behar zaion dokumentazioa.

Eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazio guztia ondokoa da:

a) Dirulaguntzaren eskaera, deialdi honen **I. eranskineko** ereduaren arabera.





- b) Beste administrazio, erakunde edo organismo publiko zein pribatuei eskatutako eta/edo haiengandik jasotako dirulaguntzen zinpeko aitorpena.
- c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiri positiboak.
- d) Erakunde interesdunaren identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
- e) Enpresen lan-bizitzaren txostena (A002).
- f) Dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentua eta erakundearen estatutuen kopia, edo, hala badagokio, eratze-eskiturena.
- g) Erakundearen ordezkariak jarduteko duen ahalaren kopia eta haren NANA.
- h) Dirulaguntzaren xede den proiektuaren memoria teknikoa, garapen ekonomikorako eta enplegua sortzeko proiektua deskribatzen duena. Memoriak deialdiaren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko nahikoa informazio jaso beharko du:
 - 1) Proiektuaren erakunde sustatzailea.
 - 2) Proiektuaren izena.
 - 3) Eskabidearen memoria, gehienez ere 15 orrialdekoa izan beharko da, eta emakidarako balora daitezkeen alderdiei buruzko informazio zehatza jaso beharko du. Aurkeztu ez diren alderdiak ez dira puntuatuko.
 - 4) Proiektua koordinatzeko pertsonak eta harremanetarako datuak.
 - 5) Proiektuak hartzen duen parte-hartzaile kopurua: gutxienez 8 - gehienez 12.
 - 6) Jarduteko lurralde-eremua: Galdakao.
 - 7) Prestakuntza-ibilbidearen ordu-kopurua: gutxienez 60 ordu - gehienez 90 ordu.
 - 8) Prestakuntza-ibilbidea ematen duen erakundea.
 - 9) Lan-orientazioko ekintzak ematen dituen erakundea.
 - 10) Proiektuko parte hartzaileen erakunde kontratatzailea.
 - 11) Erakundearen legezko ordezkariak dirulaguntza eskuratzeko baldintzak betetzen dituela eta proiektu bakoitza berme osoz garatzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
 - 12) Onura publikoko edo interes orokorreko eta sozialeko jarduketaren eremua.
- i) Memoria ekonomikoa; bertan jaso beharko dira proiektua gauzatzearekin zerikusia duten gastuen aurreikuspenak zehatz-mehatz, bai eta proiektuaren bideragarritasuna ere.
- j) Erantzukizun adierazpena, dirulaguntzaren onuraduna izateko deialdian ezarritako eskakizunak betetzen dituela adieraziz, II. Eranskineko ereduaren arabera.
- k) Gainerako Eranskinak: 3tik 6ra.





10. artikulua.- Memoriaren edukia.

Diruz lagunduko den programaren azalpen-memoriak eduki hauek jaso behar ditu:

10.1.- Memoria teknikoa; bertan jaso beharko da programaren deskribapena, helburuak eta lanpostuen deskribapen laburra: izendapena, zeregina, funtzioak, maila profesionala, lantokia eta laneko arriskuen ebaluazioa, eta abar.

10.2.- Laburpen ekonomikoa, diru-sarrera eta gastuen aurrekontua zehaztuta, hala nola materialak, ekipamendua, jantziak, kudeaketa eta kontratazioa; bertan hileko soldata, kostu sozialak, aparteko paga, indemnizazioak eta abar ere jaso beharko dira (**III. Eranskina**).

Proposamen ekonomikoak kasu guztietan, aipatutako Hitzarmen Kolektiboan dagokion maila profesionalerako ezarritako soldatak errespetatuko ditu.

10.3.- Proiektu bakoitzean egin nahi diren lan-kontratuen kopurua adierazi beharko da memorian. Kontratu horiek gehienez 12 eta gutxienez 8 izan beharko dira proiektu guztietarako, eta gutxienez 3 hilabeteko iraupena izan beharko dute guztiek.

10.4.- Programan parte hartzeko izangaiak hautatzeko, entitate eskatzaileek **V. Eranskinean** ezarritako izangaiak baloratzeko irizpideak betetzeko konpromisoa hartu beharko dute, bai eta deialdi honen 6. artikuluan kontratatu nahi diren pertsonentzako eskakizunak ere.

10.5.- **V. Eranskinean** dauden izangaien eskabideak baloratzeko irizpideak aldatu egin daitezke, Alkate Udalburuaren Ebazpen bidez, baldin eta behar bezala justifikatzen eta ziurtatzen bada irizpide horiek betetzen dituen pertsonarik ez dagoela.

10.6.- Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez: proiektuan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko memoria laburra, aurreikusitako prestakuntza, proiektua garatu bitartean egingo den jarraipena, Aholkularitza Konfidentziala osatzen duten pertsonen izendatutako pertsona edo pertsonak, datuak generoaren arabera banakatuta, arlo horretako gorabeheren txostenak.

10.7.- Hizkuntza-eskubideak. Dirulaguntzen deialdi honetara aurkezten diren erakunde guztiek euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko 10/1982 Legean eta hura garatzeko araudian ezarritako hizkuntza-eskubideak betetzen direla bermatu beharko dute. Horretarako, jarraipen-sistema bat aurkeztuko dute, datu banakatuekin eta gorabeheren laburpenarekin.





11. artikulua.- Instrukziorako eta ebazteko organo eskudunak.

Orokorrean, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, dirulaguntza kudeatzen duen arloak (Toki-garapeneko eta Enpleguko arloa) egon daitezkeen gorabeherak ebatziko ditu, eta behar diren egiaztapenak egingo ditu, baita eskabideen balorazioa ere; eta azkenik, egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena egingo du.

Gaiaren arabera, eskumena duen Informazio-batzordeko kide guztiek osatzen duten kide anitzeko organoak, espedientea eta Arlo kudeatzailearen txostena ikusita, ebazteko eskumena duen organoari emakida-proposamena egingo dio; bertan, dirulaguntzen onuradunak eta zenbatekoa adieraziko dira, bai eta proposamen horren arrazoia ere.

Ebazpen-proposamenak, ez die inolako eskubiderik sortzen proposatutako onuradunei Administrazioaren aurrean, emakidaren ebazpena jakinarazten ez zaien bitartean.

Alkatetza, edo delegatutako organoa, izango da ebazteko organo eskuduna. Kide anitzeko organoak egindako proposamenaren arabera egingo da, arrazoituta egongo da, eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzako 24. artikuluan ezarritako elementu guztiak jaso beharko ditu.

Prozeduraren ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea ezingo da sei hilabete baino luzeagoa izan. Epea, dagokion deialdia argitaratu denean hasiko da, berorrek ondoko beste data batera atzeratzen ez badu.

Ebazpena honela jakinaraziko da: administrazio-prozedura erkidearen araudiaren arabera, egin denetik 10 egun balioduneko gehieneko epean, bidezkoak diren legezko errekurtsioak adierazita.

Ebazpena emateko epea iraungi eta jakinarazpenik egin ez bada, interesdunei zilegitasuna ematen die eskabidea isiltasun administratiboagatik ezetsi dela ulertzeko, egokitzen jotzen dituzten errekurtsio administratibo edo judizialak aurkez ditzaten.





12. artikulua.- Ebazteko eta jakinarazteko epeak.

Dirulaguntzak emateko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi hau dirulaguntzen datu-base nazionalen argitaratu den datatik hasita.

Gehieneko epea igaro eta interesdunei ebazpena jakinarazi ez bazaie, zilegi izango da ulertzea dirulaguntza emateko eskabidea onartu ez dela, administrazioaren isiltasunagatik.

Ebazpena erakunde onuradun bakoitzari jakinarazi ondoren, arlo kudeatzaileak izendatutako pertsonak, Ekonomia Sustapeneko eta Enpleguko zinegotziak, hasteko idatzizko jakinarazpena egin eta gehienez ere hamar egunera hasiko da programa bakoitza.

13. artikulua.- Ordaintzeko era.

Deialdi honetan aurreikusitako ekintzak burutzeko emandako dirulaguntza hiru ordainketa zatikatuan ordainduko da, era honetan:

1. Lehenengo ordainketa dirulaguntzaren % 50 izango da, eta hamar eguneko epean ordainduko da, programaren hasiera egiaztatu ondoren; horretarako, kontratuak eta proiektuaren helburua lortzeko kontratatutako pertsonen Gizarte Segurantzaren emandako alta aurkeztu beharko dira.
2. Bigarren ordainketa, dirulaguntzaren % 45, arlo kudeatzaileak, Ekonomia Sustapeneko eta Enpleguko arloak, kontratua behar bezala egikaritzeari buruz aldeko txostena egin eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean egingo da. Erakunde onuradunak bigarren ordainketaren eskaera aurkeztu beharko du, eta eskaerari erantsi beharko dizkio programa gauzatzen den lehen bi hilabeteetako nominak eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-buletinak.
3. Hirugarren ordainketa, gainerako % 5a, hogeita hamar eguneko epean egingo da, arlo kudeatzaileko arduradunak, Ekonomia Sustapeneko eta Enpleguko





zinegotziak, aldeko txostena eman ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako azken likidazioaren ondoren, Lanbidek kofinantzatzen badu.

14. artikulua.- Jakinarazteko moduak.

Ebazpena eskatzaile bakoitzari indibidualki edo, bere kasuan, legezko ordezkariari jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

15. artikulua.- Entitate onuradunen betebeharrak.

Oro har, onuradunek arau hauetan aurreikusitako betebeharrak dituzte: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14., 27., 42. eta 46. artikulua, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antol-arauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikulua, dirulaguntzen udal-ordenantza, oinarri orokorrak eta deialdi hau. Eta, bereziki, honako betebeharrak hauek dituzte erakunde onuradunek:

a) Enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskabidea aurkeztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan.

b) Dirulaguntza eman ondoren eta Lanbide-en inskribatutako pertsonen datuak eskuratu baino lehen, datu pertsonalen tratamenduari buruzko konpromisoa sinatzea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak emango die), arlo hori arautzen duen indarreko araudian xedatutako baldintzetan, tratamenduaren arduradunak diren aldetik.

c) Kontratuen hasieraren berri ematea hamabost egun balioduneko epean, eta zenbat langabe kontratatu diren zehaztea.

d) Kontratuaren azkentzearen berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari, kontratua amaitzen denetik 15 eguneko epean.

e) Parte-hartzaileen ordezkapenaren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari 15 eguneko epean, ordeztutako pertsonen lana amaitzen den egunetik zenbatuta.

f) Laguntza emateko eta hura baliatzeko bide eman duten betekizunak eta baldintzak betetzen dituela eta jarduera gauzatu duela justifikatzea.

g) Dirulaguntza eman den helbururako erabiltzea.





h) Diruz lagundutako jardueren xedea edo izaera nabarmen aldatzen duen edozein gertaeraren berri ematea, bai eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabarren aldaketaren berri ere.

i) Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jasoz gero –kostu berarekiko finantzaketa bikoitzik egin gabe–, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozeduren berri ematea.

k) Neurriak hartzea, jasotako dirulaguntza erabiltzean iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko.

l) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin lankidetzan jardutea ofizioz edo alderdi batek eskatuta diruz lagundutako jarduera egiaztatzeko, ikuskatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko bideratzen dituen prozeduretan, eta Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Ogasun eta Finantza Saileko Politika Ekonomikoaren eta Europako Funtsen Kohesioaren Zuzendaritzak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen- eta kontrol-jarduketan eraginpean jartzea.

m) Emakumeen eta gizonen arteko tratu- edo aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzen dela bermatzea proiektuetan parte hartzeko pertsonen probetan, elkarrizketetan eta hautaketan. Entitateak deialdi hau komunikatzeko eta zabaltzeko erabiltzen duen dokumentu, publizitate, irudi eta material orotan, hizkera ez-sexista erabili beharko du, emakumeen irudi diskriminatzaile eta estereotipo sexista oro saihestu beharko du eta irudi jakin bat sustatu beharko du, balio hauek izango dituen: berdintasuna, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero-rolen eta identitateen pluraltasuna.

n) Diruz lagundutako gastuei eta jarduerari buruzko dokumentazio guztia 2032ko abenduaren 31ra arte gordetzea eta zaintzea, behar izanez gero egiaztatzeko.

